

Digitalizazioa pertsona guztien eskura jartzearen aldeko apustua egin du Udalak

Ekitate digitala sustatzeko sortu da Digitahal.

Donostiako Udalak, Donostia Lagunkoiaren bidez, eta Teknologia Soziala Sustatzeko Elkartarekin (APTES) lankidetzan, zerbitzuen, programen, proiektuen eta ekimenen digitalizazioan diseinu soziala sustatzeko esparru bat aurkeztu du: **DIGITAHAL**. Hau da, digitalizazioan lan egiten duten erakundeek digitalizazio humanista bat diseinatu eta gara dezaten, hain zuzen ere pertsonak, haien errealitateak, itxaropenak eta premiak erdigunean jartzen dituen; era horretan, egun bizi dugun eraldaketa digitalaren testuinguruan dauden arrakalak murrizteko, eta digitalizazioa bazterketaren eta desberdintasunaren aurkako tresna bat izan dadin.

Eraldaketa digitaleko prozesuetan murgilduta dauden erakunde publiko eta pribatu¹etako profesionalekin egindako elkarrizketa-prozesutik ateratako ikaskuntzak biltzen ditu *Digitahalek*; hau da, digitalizazio prozesua nola egiten ari diren, zer erronkari aurre egin behar dioten eta esperientzia horietatik zer ikaskuntza ateratzen ari diren.

Digitahal-ek, izenak berak dioen moduan ('Digit' + 'ahal'), gakoak ematen ditu hausnarketen eta ekintzen bidez ekitate digitala sustatzeko. Digitalizazioa pertsona guztien eskura jartzearen aldeko apustua egin du Udalak.

Digitahal, Onkidetik sortutako ekimena

Arrakala digitala da gaur egun aurre egin beharreko gizarte-erronka nagusietako bat, eta arrakala hori esanguratsua da adinekoen artean. Baina ez die adinekoei bakarrik eragiten, izan ere, adinarekin batera: «ezberdintasun nabarmenak atzematen dira generoaren, errentaren, ikasketa-mailaren edo bizilekuaren arabera». Adibidez, 80 urtetik gorako pertsonen % 76 arrakala digitalarekin kezkatuta dago, eta Telekomunikazioen eta Informazioaren Gizartearen Behatoki Nazionalaren arabera, IKTetik deskonektatutako pertsonen % 60 emakumeak dira, eta horrek are gehiago larritzen du genero-arrakala gure gizartean.

Testuinguru horretan, Donostian hainbat erakunde laguntzen diete adinekoei beren gaikuntza digitalean. 2021az geroztik, erakunde horiek OnKIDE ekimena osatzen dute. Konexiorako eta lankidetzarako gune bat da OnKIDE eta Donostiako Udala da ekimen horren buru, Donostia Lagunkoiaren eta APTESen bidez. Bertan parte hartzen dute Nagusilaneak, MatiaZaleak, Izarbidet, KZguneak, Adinekoen Elkarteei Laguntza Teknikoa emateko Udal Zerbitzuak eta Donostiako Udaleko Gizarte Ekintzako Zuzendaritzaren Plus 55 programak.

OnKIDEn identifikatzen da ezen, nahiz eta askotan uste dugun pertsona bera dela bere trebakuntza digitalean erantzukizuna duena, ezinbestekoa dela horren jakitun izatea, era horretan kontuan izateko erantzukizun partekatua dela inor arlo digitalean

¹Donostiako Udala (dbus, Donostia Kirola, DonostiaTik, Donostiako Sustapena), Cluster Gaia, Gipuzkoako Foru Aldundia (Modernizazio eta Eraldaketa Digitaleko Zuzendaritza), Fractal Strategy, Eroski Fundazioa eta Eroski Taldea, Eusko Jaurlaritza (herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritza, Berrikuntza Sozialaren Zuzendaritza, Eraldaketa Digitalaren eta Ekintzailatzaren Zuzendaritza, Kzgunea,), GuuK, Kutxabank, Osoigo.

atzean ez geratzea, eta euren jarduera digitalizatzen duten erakunde publiko edo pribatuen zeregina ere badela. Gogoeta hori oinarritzat hartuta jarri da abian *Digitahal*.

Konexioa OGP Euskadirekin

Lan-prozesu horretan, Open Government Partnership Euskadi (OGP) 2021-2024 programaren 3. konpromisoarekin konektatu da *Digitahal*. Konpromiso horrek digitalizazio-prozesuen diseinuan eragin eta forma berriak proposatzea du helburu, hain zuzen ere digitalizazio-prozesuen diseinuan eragiteko eta lan-modu berriak proposatzeko –hala, arrakala digitalak oinarri-oinarritik saihesteko–. Hori guztia lortzeko, tresna praktikoak diseinatzen ari da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren gidaritzapean, digitalizazioan inplikaturako eragile guztien beharrak eta nahiak kontuan hartuz, baita diseinuan bertan ere.

Ekitate digitalari buruzko jardunaldia udazkenean

Donostiako Udalak, Donostia Lagunkoiaren bidez, arlo horretan egiten ari den jardueren esparruan, ekitate digitalari buruzko lan-jardunaldi bat antolatuko du urriaren amaieran. Eremu eta profil desberdinetako profesionalen artean hausnartzeko jardunaldi bat izango da: gure ekintzak oinarritzat hartuta, nola berma dezakegun pertsona guztiek modu ekitatiboan erabili ahal izatea irtenbide digitalek eskaintzen dituzten aukera guztiak, eta nola berma dezakegun tresna horien modu eraginkorragoan erabiltzea.